



UDALEKO ENPLEGU SUSTAPENENKO PLANA

PROGRAMAREN IZENA: TITULATU BERRIENTZAKO BEKAK

HELBURUAK

- Titulatu berriei lehen lan esperientzia kualifikatuak erraztea
- Herriko enpresei titulatu berrien gaitasun profesionala ezagutzeko aukera ematea

DESKRIPZIOA

Programa honen xedea da herriko titulatu berriei bekak ematea, ikasketak burutu ondoren praktikak egin dezaten herriko enpresetan.

Udalak programa honekin sustatu nahi du herriko gazte titulatu berrien ekarpena bertako enpresetan geratu dadin. Hori gauzatzeko, Debagoiena Eraldatzen programaren baitan industria sektoreko enpresa multzo bati egiten ari zaien diagnostia oinarri moduan hartuko da, enpresa horien premiak ezagutzeko. Ondoren, antzemandako beharren soluziobidea izan litezkeen proiektuak formulatuko dira. Proiektu horiek titulatu berriek burutuko dituzte enpresentzat.

Diagnostia, proiektuen identifikazioa eta horiek gauzatzeko bekadunaren tutoritza Saiolan, Arrasateko Enpresa Berrikuntza Zentroak egingo du. Udalak titulatu berrien beken kostea beregain hartuko du (beken zenbatekoa oraindik zehaztu barik dago); enpresak, proiektua garatzeko behar diren gainontzeko gastuak.

IRAUPENA

Bekek 6 hilabete iraungo dute gehienez, eta edozein kasutan proiektua garatzeko behar den denborara mugatuko dira.

EGUTEGIA

- 2014ko urria: Bekadunak inkorporatuta proiektuetan (aurreikuspena)



PLAN MUNICIPAL PARA EL FOMENTO DEL EMPLEO

DENOMINACIÓN DEL PROGRAMA: BECAS PARA NUEVOS/AS TITULADOS/AS

OBJETIVOS

- Facilitar al los/as nuevos/as titulados/as el acceso a experiencias laborales cualificadas.
- Suscitar que las empresas del municipio conozcan profesionalmente a nuevos/as titulados/as de Arrasate.

DESCRIPCIÓN

El objeto de este programa es proporcionar becas a nuevos/as titulados/as de Arrasate para que realicen prácticas profesionales cualificadas en empresas del municipio.

El Ayuntamiento mediante este programa trata de que el valor profesional con el que cuentan los nuevos titulados de Arrasate revierta en el tejido industrial local. El punto de partida es el diagnóstico del sector industrial que se está realizando a nivel comarcal a través del proyecto Debagoiena Eraldatzen. A partir de dicho diagnóstico se está trabajando en la formulación de proyectos que pongan en vías de solución problemáticas de empresas concretas. Serán los/as nuevos/as titulados/as quienes desarrollen dichos proyectos para las empresas.

Saiolan, como gestor de Arrasate Centro de Empresas e Innovación, se ocupará del diagnóstico, la identificación de proyectos y la tutorización de los/as becarios/as. El Ayuntamiento por su parte, cubrirá el coste de las becas de los/as nuevos/as titulados/as (aún no se ha determinado la cuantía de las becas); las empresas cubrirán los demás gastos que pudieran surgir.

DURACIÓN

Las becas durarán como máximo 6 meses, y en cualquier caso adecuarán su duración a las necesidades del proyecto.

CALENDARIO

- Octubre 2014: Becarios/as incorporados/as en los proyectos (previsión)



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Enplegu Zerbitzua ■